


Fakultateko kontsumoaren hiru hileko datuak

PAPERAREN KONTSUMOA (atezaintza, idazkaritza eta dekanotza)

UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA
23.00 unitate	5.500 unitate	48.500 unitate

Hona urteko azken sei hiletan izandako paper kontsumoa (orri kopurua):



Azken hiru hilekoan izandako eboluzioa desberdina izan da aurreko urtekoarekin alderatuta, batez ere uztaila eta abuztua kontu hartuta. Uztailean Fakultateko jarduera esanguratsua izan da, gradu amaierako lanen defentsa kopurua handiagoa eta ezohiko azterketak izan baitira.

Udako hiruhilekoa izan ohi da urteko goreneko eta gutxieneko erregistroen hiruhilekoa, eta oraingoan, orain arte behinik behin, halaxe izan da. Abuztua izan da urteko kontsumo txikieneko hilabetea: 5.500 orri erabili dira. Iraila izan da, berriz, urteko kontsumo handieneko hilabetea: 48.500 unitate erabili dira.

KARTUTXOAK/TONERRA (atezaintza, idazkaritza eta dekanotza)

	2015eko HIRUGARREN HIRUHILEKOA
Inprimagailuetako kartutxoak	11 unitate


Hamaika (11) kartutxo aldatu dira banakako inprimagailuetan.

PAPER BIRZIKLATUA (Fakultatea)

Gure Fakultatean jasotako paper kilogramoen berri eman digu Beotibar Recycling S.L. enpresak, Bizkaiko Campuseko edukiontzi urdinetara botatzen den papera birziklatzeaz arduratzen denak. Hona, azken hiruhilekoan fakultateko edukiontzi urdinetara botatako kantitatea:


UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA
550 kg	260 kg	1320 kg

Grafiko honek erakusten du zein izan den, paper birziklatuaren kantitateari dagokionez, azken sei hileko eboluzioa:



Uztailean 550 kg-ko birziklatzea izan da, ezohiko azterketak eta gradu amaierako lanen defentsa izan direlako, baita lehen mailako ikasleek materiala aurkeztu behar izan dutelako ere. Abuztuaren jardura txikiagoa izan da, birziklatutako paper kantitatean islatu bezala: 260 kg. Iraila, berriz, ikasturtearen hasiera denez, paper gehien birziklatzen den urteko hilabetea da. Aurten 1320 kg birziklatu dira, hots, iazko hilabete berean baino 40 kg gehiago.

Kafe Makinak... Edalontzirik Gabeko Aukera



Urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean 26.381 kafe hartu dira Fakultateko makinetan, horietatik 1.639 hartu dira edalontzirik gabeko aukera hautatuz, hots, % 6,2.

Gogoratu behar da Fakultate barruko makinek kafea 5 euro zentimo gutxiagotan emateko aukera eskaintzen dutela, hau da, 0,30 euroko kafe bat 0,25 eurotan kostako zaizu. Behin eta berrir erabili ahal den katilua erabilita, plastikozko hondakinak murriztea lortzen dugu.

Edalontzirik gabeko aukeraketa
kafe= 0,25 €

Mogikortasun Europako Astea

Urtero bezala, irailean **Mugikortasunaren Europako Astea** egin da. Irailaren 16tik 22ra bitartean egin da aurten eta, ohi bezala, ekitaldi asko antolatu dira Europa osoan mugikortasun iraunkorreko azturak sustatu nahian, bizikleta edo garraio publiko gisako garraiobideak bultzatuz.



Aurtengoak goiburu hau izan du: "Aukeratu. Aldatu. Konbinatu. Zure Mugikortasuna". Guztira, Europako 1.860 hirik hartu dute parte. Iaz bezala, UPV/EHUK ekimenari begira hainbat jarduera antolatu zituen hiru campusetan, eta ekitaldi horiek unibertsitateko **Garapen Iraunkorraren orrialdean** argitaratu ziren.



Hona bi hiritako mugikortasun ereduaren bi bideo interesgarri (eta aurkakoak):

- 👉 Kopenhage: bizikleta hirian integratzeko jarraitu beharreko adibide bat:
<https://vimeo.com/141516172>
- 👉 Pekin: automobil gehiegi eta auto kolapsatuen adibidea:
<https://www.youtube.com/watch?v=O3kL6nMap2s>

Ba al zenekien...?



- 👉 Espainiar estatuko 600 etxetan egindako xehetasunez beteriko azterlan batek jaso berri duenez, berokuntza da kontsumo energetikoaren %63 kontsumitzen duena, etxetresna elektrikoena, ur beroarena, sutea eta argiena batuta baino gehiago!
- 👉 Termostatoa 1°C jaitsita berokuntza kostuen %8 aurrezten da, eta CO2 emisioak saihesten dira.
- 👉 Bulegoko tenperatura 2°C gehituz gero, globo aerostatiko bat betetzeko adina CO2 sortzen da.
- 👉 Neguan etxeko leiho bat irekita uzteagatik galdutako beroa litzateke auto bat 56,3 km-tan gidatutakoaren baliokide.

Eta... Zer egin dezaket nik?

Hona 5 neurri merke eta eraginkor berotzeko sisteman aurrezteko:

- ✂ Gela bakoitzeko tenperatura doitu (aurreztu litekeena: %10-%20)
Ez da bero kantitate bera behar etxeko gela guztietan. Hori dela eta, onena litzateke gune bakoitzari behar duen beroa ematea, eta ez edukitzea tenperatura bera etxe osoan.
- ✂ Etxetik ateratzerakoan... itzali (aurreztu litekeena: %10-%20)
Berogailua itzaltzen denean, sistemak energia gastatzeari uzten dio bero galerak konpentsatzeko. Eta gastatzen ez den energia tenperatura berreskuratzeko behar den baino gehiago da.
- ✂ Bero galerak saihestu etxea aireztatzean (aurreztu litekeena: %15-%20)
Gomendatzen da etxeko leiho guztiak batera zabaltzea, geletako atea irekita mantenduz. Korrante horiek aukera ematen dute etxeko airea guztiz berritzeko minutu gutxi batzuetan. Sistema horrek aireztatzeko denbora murriztea ahalbidetzen du, hormak hoztea saihestuz (berriro berotu beharrak berotze gastua handitzea lekarke), neurri handi batean.
- ✂ Erradiadoreak purgatu (aurreztuko litekeena: %5)
Erradiadoreak behar bezala purgatu badira, berokuntza piztutakoan, erradiadoreek duten azalera guztia berotuko da (airea duten erradiadoreak ez daude behar bezain bero goiko partean).
- ✂ Termostato on bat (edo batzuk) instalatu



Baterientzako edukiontzi bat Fakultatean

Baterientzako edukiontzi bat jarri da, besteak beste, sakelako eta eskuko ordenagailuko bateriak botatzeko. Edukiontzia atezaintzako ate aurrean jarri da, Fakultateko sarreran. Aipatutako edukiontzi horretaz gainera, baditu lehenago toki horretan jarritakoak ere, hau da, pila eta CDentzako edukiontziak.

Datu iturriak:

- ✂ <http://www.mobilityweek.eu/>
- ✂ <http://www.magrama.gob.es/>
- ✂ <http://www.environment.admin.cam.ac.uk/resource-bank/facts-figures#heating-cooling>

Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!

Hemen proposatutako ideiarene bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta:

gkz.ekoscan@ehu.es